

Euskeraren alde

*Elgoibar'ko Euskal jaietan, 1907'ko Uztaillaren 28'an,
Mujika'ko Gregorio'k irakurritako itzaldia.*

EUSKALDUNAK ,

Ez nator, ez daukatan jakintza aundi batekin, itzaldi eder bat egiteko asmoan; ez nator, iñork esan ez dezazkiken gauza ikusgarriak esanda, zubek arritzera; ez nator ere, Elgoibarko seme ospatsuben albiste batzuek an eta emen bilduta, zuen begien aurrean jartzera aien bidea jarraitu-dezazuten. Ez, ez nator ortara. Nator bakarrik, euskeraren alde bi itz esatera. Euskeraren alde beardan bezela itzegiteko diña ez naizela, badakit; ezagutzenditut nere tsikitasuna ta nere argaltasuna, euskera bezelako gauza baten alde mintzatzeko; baña jaunak, euskaldun jaionniztan, eta euskaldun jaionitzalako, maite det biotz biotzetik euskera; ta biotz biotzetik maite badet nere izkera, ¿nola alperrik galduko det maitetasun ori zuen aurrean aitortzeko era? Nik naidet, mundu guztiak adituzalako, euskera gauza guztiak baño geiago maite detala esaten detanean. Eznaiz lotsatzen iñoren aurrean esaten: lur ontatik izkera guztiak ezkutatu bear baldin badute bat bakar bakarrik geldituta, gelditudedilla euskera.

Eta esan nai dizutet, euskaldun anaiak, zergatik maite detan euskera izkuntz guztien aurretik.

Jakintsu askok esatendigute, euskerazkoak izan zirala munduan lenengo adituziran itzak, eta orregatik euskera gorde beardala, gauza kondairatsu bat bezela. Nik ez det orregatik maite. Beste batzuek esatendute, gure ibai, erri, baso ta baserrien izenak antsiñako eginkizun

azko jakiteko ta gure asaben bizitza argi jartzeko laguntasun asko eskeintzendutelako, maite bear degula euskera. Nik ez det orregatik maite. Badira beste batzuek, izkera aberatsa, beste denak baño obeto egiña, edertasunez ugarituta dagoalako maite dutenak. Nik ez det orregatik maite.

Nik ezdakit, Adan eta Ebaren izkuntza euskera zan ala etzan; neri etzait ajolik, euskerak anfsiñako gauzak jakiteko laguntzenbadu ala ez; berdin izangolitzake neretzat, euskera ederra, aberatza ta dizdizaria dan bezela, zeken, beartsu ta argala balitz. Nik, orain ainbat maiteko nuke. Euskaldun jaio nitzan: euskera maitatzeko ez det arrazoi geiagoren bearrik. Ama bat maitatzeko, ez da ederra dan ala ez begiraten; eta ederra baldin bada, ez da ederra dalako maitatzen, ama dalako maitatzen da.

Ala ustetzen asida Euskalerrria. Jaungoikoari eskerrak, asi gera euskaldunak gure izkuntza begi gorrototsuekin ez begiraten; baño ala ere, oraindik geienak ezdute nai euskeraz mintzatu, lotsatu, egitendira euskeraz mintzaten. Lotsatu, bai; ez nuen esan nai, baño egia baldin bada ¿zergatik ez esan? Emen, etsean, aditzendegu, egunero euskeraren alde lanean gabiltzanak, gure erriari kalte aundi bat beste gauzarik ez diogula egiten, euskera ikasteko erreštasunak ematen ditugunean. Arrotzak bakarrik balira gure arerioak, beste gauzarik egiteko eskubiderik arkituko ezbagendu, altšakogenduke goi goirañoko orma bat Euskalerrri guztia esituaz, baño gure artean ditugu, gurekin bizidira etsai oiek. Euskalerrrian zerbait diran gizon geienen artean, erdera besterik ez da aditzen, esatendutenez euskera arrantzale ta baserritarren izkera dalako, kalte beste gauzarik egiten ez duen izkera bat dalako ¡A, jaunak! ¿eta etzaizute biotza erdibitzen, etzaizute anima pusketan ausitzen, euskerak eginkizun aundietako kalte besterik ez duela egiten esatea? Tsurruka, azalduzait onera, ta esanzazu zure indar guztiarekin, nolako kalteak eginzizkitzun euskera jakiteak, gudari bulardetsu ta kalipudunak bezela odola emateko; Elkano, argituzait emen, eta esanzazu nola zu izangoziñan lur guztia lenengo ikusiko zenduena, euskerak galerazi ezbalizu; etorrizait Okendo, euskerak egin zizkitzun kalteak esatera; atoz, Aita Urdaneta, euskerak zenbait eta zenbait eginkizun izugarri galerazi zizkitzun zabaltzera; Astarloa, Mendiburu, Arana, Axular, Iztueta... alfsa zaitezte zuen illobietatik eta atozte, atozte jaun oieri eranzutera; ta illdakoak billatzera joan gabe, zu, Kanpion jauna, Napara izanda euskera ez jakitez lotsatuziñalako iñork beziñ ondo ikasizenduana, altsa zaite, ta adierazoiezu jaun oieri, nola euskerak zailtasunik ez dizun ipiñi, zure izenaren ospearen oiarzunak aiñ urrutiraño zabaltzeko.

Eta gizonak ain alde batera utzi badute euskera, geiago oraindik urriñ-

dudute emakumiak; emakumiak, bai, lotsatzen dirala euzkeraz itzegiten.

Emakume aberatsak, kale ta enparantzetan apain eta dotoretuenak azaltzen diranak, uste dute beartsu ta eskaliekin berdintzen dirala euskera itzegitean, eta beartsuak emakume, aberatsak eta kale ta enparantzetan apain eta dotoretuenak azaltzen diranak ainbat izateagatik, itzegitendute erderaz aiek bezela. Ori gertatzen da emakumiekin: euskerarekin berdinak ez izan naiean, erderak berdintzen ditu. A !Euskaldun damatsoak: ezdezute Catalunya'ko emakumien antzik. An gazte ta zar, apain eta soñeko zarrekin dijoatzenak, denak mintzatzen dira beren izkuntzan, ta kalietan, ibilltokietan, alderdi guztietan ez da beren izkuntza besterik aditzen. Ez aztu, entzuten didazuten emakumeak: Catalunya'ko damak, tšikitari ikasizuten izkuntza mintzatzen, ez dira lotsatzen. Eta ez dira lotsatzen ere, lagun bati izkera ortan eskutitz bat izkribatzen, beti orrela izkribatzen dutelako. Ta zuen artean ¿zeñek bi errenkada izkribatu ote ditu euskeraz bere bizi guztian? Erderaz itzegitean baña gutsiago zeratela euskeraz mintzatzen usteko dezute, baña egi egia esatenduztet: nerretzat, Euskalerriko alaba da emakumien artean ederrena, baña galtzen du bere edertasunetik erdia ta geiago, euskera šamur eta eztitsuren itzak ateratzen utzitzeko eginziran ezpaitšurigorri aiek, erdera arrots eta zekena esateko irikitzen diranean.

Gizonekin eta emakumiekin zer gertatzen da esan eta gero, umeak zer egiten duten esan bearrik ez dago. Begiak malkoz, biotza samintasunez, eta anima naigabez betetzen zaizkit, ikustean nola oraingo umeak ez duten *Ama* esaten, nik *ama* esatendetan izkeran. Euskalerrian jaiogatik erderaz itzegitenduzuten umeak, esanzaiozute zuen amai, aoan dabilzuten izkera ortan, ezdezutela *ama* bezelako itz gozo, eztitsu ta ederrik billatzen.

Ikusi degu, nola gizonak, emakumiak eta umeak daukaten aztuta euskera gaišoa. Orain dirudi, Euskaldunak utziera orrezaz damutuak, asidira euskera piztutzen, asi dirala esnatzen.

¿Zer atsegintasuna gure izate guztia euskeraren alde gordetzendeguentzat, orrela balitz! Zer alaitasuna sentitzen da biotzean, Euskalerriko biztanle denak euskeraz mintzatuko diran egun bat igaroko dala pentsatzen. ¿Eta zergatik ez du igarobear? Eginzagun guztiok aldeguna, itzezinzagun euskeraz eta euskeraren alde erderaz izkribatzen denbora galdu gabe, izkribatuzagun euskeraz. Orduan izangoda irištia, ekarri naidegun egun doaitsua. Badauzkagu euskera zabalitzeko lana egiten duten batzarreak; inguratu zaitezte, euskaldunak. Guk aldegun guztia egiñagatik, gutši egindeikegu zuek gabe: denok batuta indarrak geituaz, bear degu ausi gerturatudan odoi beltza, ta estali Ama Euskeraren oñak lora garaitondatsuakin.

Zuek, Elgoibartarrak, aurtan Euskaljaiak ikustendituzutenak, esna-

zaitezte zuen lotarkiatik, eta aurrekoen kondaira berrituaz, altsazaitetzte Euskalerrria gordotzitzera, baña ez odola išuriaz, ez; ez miñaren garra-siekin eta guden burrunbakin mendiak beteaz, baizik gaurko armakin, lanaren eta maitetasunaren armakin. Esnazaitetzte, Elgoibartarrak, zuen bearra du Euskalerrriak euskera gordetzeko.

Euskera zale asko dauzka zute eme, zuen aurrean; atozte oengana, eta ¡aurrera! Aurrera, bai; ez lotsatu iñoren aurrean euskeraz itzegiten. Ez dedilla esan beiñere, Elgoibartarrak ere jarrizutela beren zatia euskeraren kontra. Eta orain, beti ta ill arte, eramanzazute biotzean jarria, euskaldun gustiak eraman beardegun agerkai eder au: Euskalerrria ta euskera ¡gora beti! Eta iñork esatenbadizute ezertarako balio ezduten zarkeriak ekartzea dala guk naideguna, erantzuiozute Euskalerrria jarri nai degula bide berrian eta jarraitu azi aurrera beti; gure gauza zarretatik batzuek betiko utzi nai ditugula, antolatu oraingo bearrak betetzeko beste batzuek, eta bi gauza, izkuntza ta Lege Zarrak, ekarri antsiña ziran bezela, zar zarrak, lurra beziñ zarrak. Eta esanzaiozute, alperrik galduak daudela uste badu ere, ez dala egia; aspaldian geldi geldi egondiralako autsez beteak daudela, ta etsaiak nai badu ta nai ez badu, ekarrikoditugula, ta autsa kondu ta apain ikusikodituela, oraindik, bere argi distiatzallearen errañoakin Euskalerrriko basoen tontorrak sututzen.

